

ISSN: 2530-6561
2023ko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Sexu eta genero aniztasuna aztertzeke gakoak

Aimar Rubio Llona

Sexu eta genero aniztasuna aztertze gakoak

Aimar Rubio Llona.

Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU

aimar.upv@gmail.com

“Betidanik ezagutuko banu bezala nabari nuen eta neurri batean halaxe zen. Elkarri begietara zuzen begira geratu ginen eta laster ondo-ondora etorri zitzaidan. Besoa luzatu eta hatz erakuslea bular gainean jarri zidan. Oso lasai nengoen, konfidantzaz beterik. Orduan bere hatzetik nire gorputzera indar bero bat igaro zen eta, kolpe batean arropa denak erre zitzaizkidan, neuk azalean inolako minik jasan gabe. Halaxe, biluzik geratu nintzen Satanen aurrean”.

Onan, Aitor Arana

Aurkibidea

1. Sarrera	8
2. Sexu eta genero aniztasunaz jarduteko hasierako gogoetak	9
2.1. Sexua sistema heteronormatibo eta patriarkalean	9
2.2. LGTBI+ zer den ulertzea	10
2.3. Betaurreko interseksionalak jartzearen garrantzia	10
3. Sexuaren une politikoak historian	12
3.1. Sodomatik psikiatrikora	12
3.2. Homofobiaren eta transfobiaren globalizazioa	13
3.3. Sexu askapenerako mugimenduaren jaiotza eta hedapena	14
4. LGTBI+ pertsonen eskubideen ikuspegi orokorra	16
4.1. Estatu homofobia eta beste deabru batzuk	16
4.2. Sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzearen ondorioak	17
4.3. Sexu eta genero aniztasuna giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean	18
5. Ikerketarako eta ekintzarako zenbait proposamen	20
6. Erreferentzia bibliografikoak	22

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Xabier Gainza
Amaia García
Itziar Mujika
Unai Villena
Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Sexu eta genero aniztasuna aztertzeke gakoak](#)

Egilea: Aimar Rubio Llona

hegoak zabalduz - 33. zk. 2023ko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:



<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Sexu eta genero aniztasuna aztertzeako gakoak

Laburpena: Zein dira sexu eta genero aniztasunari helduko dion ikerketa bat planteatzeko oinarrizko premisak? Zer ibilbide izan du historian harreman ez-heterosexuaren eta genero adierazpen disidenteen gaitzespenak? Zein da LGTBI+ pertsonen giza eskubideen egoera? Zein dira orientazio sexuala eta genero identitatea babesteko tresnak? Zer gai izan daitezke interesgarriak arlo honetan? Besteak beste, galdera horiei erantzuten die lan honek, eremu horretako azterlanen sorkuntzara erakartzeko eta horren inspirazio izateko funtsezko helburuarekin.

Era berean, oinarrizko zenbait ideia eman nahi ditu, azaltzeko nola egituratzen den sistema heteronormatiboa eta patriarkala, zer diren LGTBI+ identitateak eta ikuspegi intersektionala, nola esportatu diren hainbat herrialdetara homosexualitatea kriminalizatzen duten legeak eta zer ikuspegitatik begiratu behar diogun mendebaldeko sexu askapenerako mugimenduaren sorrerari. Hala eta guztiz ere, lan hau baliagarria izan daiteke irakurle ororentzat, baina, bereziki, sexu eta genero aniztasunari buruzko azterlanek planteatzen dituzten alderdi oinarrizkoenetako batzuk ezagutu nahi dituzten ikertzaileentzat.

Gakoak hitzak: LGTBI, sexu eta genero aniztasuna, homofobia, transfobia, giza eskubideak.

Abstract: What are the basic premises when researching sexual and gender diversity? What has been the path of condemnation of non-heterosexual relationships and dissident gender expressions throughout history? What is the situation of the human rights of LGTBI+ people? What are the protective instruments based on sexual orientation and gender identity? What topics can be interesting to explore in this field? These are some of the questions addressed in this work, with the primary aim of enticing and inspiring the creation of studies with this focus.

It also aims to offer some basic notions about how the heteronormative and patriarchal system is articulated, what LGBTQ+ identities are, and the intersectional approach. It explores how laws criminalizing homosexuality have been exported globally, and provides insight into the origins of the Western sexual liberation movement. Overall, this work may be valuable for the general public and researchers alike who wish to grasp some of the fundamental aspects posed by studies on sexual and gender diversity.

Key words: LGTBI, sexual and gender diversity, homophobia, transphobia, human rights.

1. Sarrera

Sexu eta genero aniztasunaren azterketak zenbait erronka sor diezazkioke, hasiera batean behintzat, gai konplexu bezain aberasgarri horri heldu nahi dion ikertzaileari. Alde batetik, aniztasuna *letra larriz* lantzea da kontua, eta, horretarako, ondo zehaztu behar dira aztertu beharreko pertsonak edo identitateak, azterketa zer ikuspegitik planteatzen den edo non jartzen den arreta, hau da, sexu orientazioan, genero identitatean, genero adierazpenean edo beste errealitate batzuetan. Bestalde, gizarte eremuan sexu eta genero aniztasuna aztertzen duten azterlanak ez dira beste gai batzuetakoak bezain ugariak, eta, ondorioz, ez daude ideia berriak eta gaiari heltzeko bide berriak inspiratzen dituzten erreferenteak.

Hain zuzen ere, erronka horiei erantzutea da argitalpen honen helburua; lagungarria izango da, besteak beste, sexualitateei eta gorputz disidenteei dagokienez pribilegio eta zapalkuntza sistema nola artikulatzen den identifikatzeko, ezaugarri horiek dituen ikerketa batean zer ikuspegi baliatu beharko litzatekeen ezagutzeko, historian sexu eta genero aniztasunaren kondanak eta sexu askapen modernoaren mugimenduaren gakoak zein izan diren azaltzeko. Era berean, LGTBI+¹ pertsonen giza eskubideen ikuspegi globalari buruzko argazki bat ematen da, bai eta arlo horren ikerketarako proposamen batzuk ere, gai horri buruzko ikerketa, ezagutza eta ekoizpen zientifikoa sustatzeko xedez.

1 Argitalpen honetan, LGTBI+ siglak erabiliko dira pertsona lesbianak, gayak, transak, bisexualak, intersexualak eta bestelako sexu eta genero identitateak aipatzeko.

2. Sexu eta genero aniztasunaz jarduteko hasierako gogoetak

Zaintza askotariko testuinguruetan garatzen da eta jarduera anitz hartzen du bere barruan: arropa eskegitzea, triste dagoen lagun batekin kafe bat hartzea, ospitale bateko ohe ondoan gaua pasatzea, ezin duena dutxatu eta janzea, garbitzea... Izan ere, herri batzuetan zaintza lanak egin ahal izateko aurrebaldintza da ur bila joatea, egurra batzea edo bizibidea lortzeko beste zenbait jarduera egitea, nahiz eta ipar globalean maiz ez ditugun halakoak zaintza lantzat hartzen. Horregatik, zaintza testuinguruari loturiko jarduera da, momentu historikoaren eta espazio geografikoaren arabera aldatzen dena. Gainera, zaintzak harremana du, gizakiez gain, animalia eta landareen bizitzak eusteko egiten ditugun jarduerekin.

Zahartzaroa ulertzeko erak ere askotarikoak dira, nahiz eta gure testuinguruan sarritan irudi estereotipatuak gailendu. Zaharra baliorik ez duenarekin edo aktiboa ez denarekin lotzen du maiz kapitalismoak, eta gaztetasuna eta berritasuna goraiatzan ditu. Zahartzaroa heriotzarekin, gaixotasunarekin eta mendekotasunarekin ere lotzen da.

Zaintzaren eta zahartzaroaren ulerkeretan botere-harremanak islatzen dira, baita haien gainean eraikitako ezagutza akademikoan ere. Kontzeptu bat definitzen dugunean, hautu bat egiten dugu: errealitatearen zati bat enfokatzeko. Horrek, ezinbestean, beste elementu batzuk enfokatu gabe uztea dakar. Enfokatu dugun errealitatearen zati horri izaera unibertsala ematen diogunean sortzen da arazoa.

2.1. Sexua sistema heteronormatibo eta patriarkalean

Sexu biologikoa era honetara definitzen da: modu objektiboan beha daitezkeen alderdi fisikoen – organo genitalak, hormonak, kromosomak, etab.– multzoa. Behaketak berez ez dakar inolako kalterik, ez balitz jaiotzen garen unetik beretik, edo lehenago, pertsonok nolakoak izan behar dugun eta ez benetan nolakoak garen ezartzen duelako.

Behaketa determinista horrek bi errealitateetan kodetzen gaitu: gizona edo emakumea. Horrek esan nahi du, genitalen arabera, sistema heteronormatibo eta patriarkalak baldintzatzaile batzuk ezartzen dizkiela pertsonari: indarra, jabetza eta ernalkuntza zakilaren ezaugarri bereizgarriak dira, eta ahultasuna, zerbitzua eta haurdunaldia aluarenak. Era berean, sistemak berak hainbat espektatiba inposatuko dizkie gizon zein emakumeei, sistemak horretan jarrai dezan. Hala, gizonak lan indar aktiboa izango dira (nekazariak, langileak, polizia, militarrek...), eta emakumeak, aldiz, lan indar pasiboa (haurren eta adinekoen zaintza) (Zappino, 2022).

Logika horri jarraituz, sistema bere horretan mantentzen laguntzen ez duten plazer, afektu eta desira guztiak kondenatu eta jazarri egin beharko dira (Foucault, 2009). Historikoki, sodomitak eta sorginak, eta gaur egun bollerak eta marikak, sexuaren sortze printzipioak zalantzan jartzen dituzten *outsiderrak* izan dira, eta hala dira gaur egun ere. Eta hala dira, halaber, gorputz eta identitate disidenteak, hau da, sexuari lotutako rol eta adierazpen tradizionalei aurre egiten dieten pertsonak, hala nola transak.

Hau da abiapuntua: biztanleriaren kontrol soziala bilatzen duten eta sexu eta genero aniztasunaren gaitzespena elikatzen duten bi estamentuak identifikatzea. Alde batetik, erregimen patriarkalak egituratzen duen antolaketa sozialeko sisteman, gizonen esku daude, modu eskusibo eta orokorrean, boteregune giltzarriak –politikoak, erlijiosoak, sozialak eta militarrek–. Bestetik, sistema heteronormatiboak sexualitatea normalizatzen eta gidatzen duten botere harremanak arautzen ditu, eta erabat baztertzen du heterosexualitatearen, monogamiaren eta genero egokitzapenaren idealetatik kanpo dagoen guztia (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, 2018).

Patriarkalak eta heteronormatiboak generoaren barne bizipen indibidual bakar bat legitimatzen du, erakarpem emozional, afektibo eta sexuala sentitzeko gaitasun bakar bat eta ingurune publikoan ikusgai izateko modu bakar bat, periferiara baztertuz gainerako identitate, orientazio eta adierazpenak. Horregatik, desira, plazer, afektu eta gorputz disidenteenganako hurbilketa orok oso kontuan izan beharko du pribilegio patriarkal eta heteronormatibotik kanpo diharduten identitateek elkarrekiko duten erlazio itzela.

2.2. LGTBI+ zer den ulertzea

LGTBI+ pertsoez ari garenean, sistema kapitalista global baten barruan mugatu eta eraikitako identitate sexual jakin bat duten pertsoneri (lesbianak, gayak, bisexualak, asexualak, pansexualak, demisexualak...) edo genero identitate jakin bat dutenei buruz (transexualak, transgeneroak, ez binarioak, queerrak...) ari gara (D 'Emilio, 1983). Sigla bakoitzaren atzean, diskriminazio, jazarpen eta indarkeria historia bat ezkututzen da, baina baita borroka, biziraupen eta harrotasun historia bat ere.

Identitate guztiek dituzte gutxienez lau ezaugarri komun. Alde batetik, *dimentsio anitzekoak* dira; izan ere, pertsona garen aldetik, identitate ugariarekin batera bizi gara, eta haiekin identifikatzen gara. Senti gaitzke gay edo trans, baina, aldi berean, klase nortasuna, politikoa, auzokoa... ditugu. Bestetik, identitateak *jariakorrak* dira, hau da, aldatu eta eraldatu egiten dira denboraren joanean. Adibidez, zenbait emakume uneren batean lesbiana gisa identifikatzen dira, eta, geroago, bollera gisa.

Identitateak, halaber, guztiz *politikoak* dira, inguruneko baldintza ekonomiko, sozial eta kulturaleri erantzuten baitiete. Adibidez, eskualdeetako eta estatuko gobernuak LGTBI+ pertsonen eskubideak sustatzen dituztenean, nortasun horietako kide izatea eta bertan militatzea bultzatzen dute. Azkenik, identitateak *baliagarriak* dira; izan ere, kolektibo baten identifikazioan oinarritzen dira, zeinarekin partekatzen baitira hainbat ezaugarri komun. Horri esker, ukatu ohi zaizkien eskubideen eta askatasunen agenda bat antola daiteke.

Sexu eta genero aniztasunaren gaiari heltzeko orduan, LGTBI+ identitatearekin identifikatzen ez diren pertsonak ere aurki ditzakegu. Adibidez, espetxeetan edo sexu klandestinoko edo *cruisingeko* guneeetan, sexu bereko beste batzuekin sexu harremanak edukita ere heterosexual sentitzen diren pertsonak egon daitezke (Guardajo, 2002). Ikusi, halaber, ONUSIDAK zer identifikazio egiten duen sexu prebentzioari eta osasunari buruzko txostenetan. Normalean, gizonekin sexua duten gizonak (GSG) eta emakumeekin sexua duten emakumeak (ESE) terminoak erabiltzen ditu, sexu transmisio baten sarbidean jartzen baitu arreta, eta ez identitatean (ONUSIDA, 2009).

Beraz, sexu eta genero aniztasuna den guztia ez da, nahitaez, LGTBI+. Sexu eta genero identitateak dira, orobat, sistema heteronormatiboa eta patriarkala zalantzan jartzen dutenak, praktika sexualaren, emozionalaren, itxuraren eta portaeraren bidez. Eta heteronormatibitatearen eta patriarkatuaren aurrean sexu askapenerako agenda aldarrikatzen duten pertsonak ere hala dira.

2.3. Betaurreko interseksionalak jartzearen garrantzia

LGTBI+ pertsonak bizi dituzten aldagai, desafio eta erronka ugariak justifikatzen dute kolektibo horretara egiten den hurbilketa interseksionala. Ikuspegi hori, genero ikuspegiarekin eta giza eskubideekin estuki lotua, Kimberlé Crenshaw (Crenshaw, 1991) eta Patricia H. Collins (Collins, 2000) idazleek sortu zuten; feminismoaren eta arraza kritikoaren teoriarik ezagunak dira biak. Haien arabera, diskriminazioak eta indarkeriak pluralean idazten dira, eta inoiz ez singularrean.

Ikuspegi interseksionalaren ustez, sistemak pribilegio edo zapalkuntza egoeran kokatzen gaitu, ezaugarri indibidual eta sozial jakin batzuen arabera. Horretarako, onartu beharra dago pribilegioaren esparruan heterosexualak ez ezik, zuriak, gizon maskulinoak, jatorri europarreko pertsonak, hiritarrak, dibertsitate funtzionalik ez dutenak, alfabetatuak... daudela. Pertsona zapalduen esparruan, berriz, homosexualak ez ezik, genero adierazpen disidenteko pertsonak, arrazializatuak, landatarrak, dibertsitate funtzionalekoak eta alfabetatu gabeak egongo dira, besteak beste.

LGTBI+ pertsonen diskriminazioa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa aztertzeke nahitaez hartu behar dira kontuan aldagai horiek guztiak, hau da, pribilegioaren eta zapalkuntzaren mapan pertsonak non dauden kokatuta. Era horretara, Euskadira migratutako emakume beltz eta lesbianen diskriminazioa ikertzen badugu, ez dugu haienganako indarkeria homofobia soilik aztertu behar; beste indarkeria batzuk ere hartu behar ditugu kontuan, hala nola matxismoa, arrazismoa, xenofobia eta klasismoa.

Diskriminazioak eta indarkeriak ez dira inoiz bakarrik gertatzen, eta beti sortzen dira desberdintasuna dakarten hainbat desberdintasunen faktore metatzaile baten ondorioz. Ikuspegi interseksionala baliagarria da, halaber, menpeko taldeen barruko menderakuntza egiturak aztertzeke. Adibidez, maila ertaineko edo goi-mailako gizon zuri gay batek pertsona trans, arrazializatu eta langile batek baino aukera gehiago ditu pribilegiozko egoeran egoteke.

3. Sexuaren une politikoak historian

3.1. Sodomatik psikiatrikora

Ez dago sexua baino gauza politikoagorik. Historian, boterea beren esku zuten eragileek ezarri izan dute zer desira, afektu eta plazer diren naturalak, legezkoak eta osasungarriak, eta, horien aurrez aurre, zein diren moralgabeak, legez kanpokoak eta patologikoak. Errealitate hori nabarmena izan da mendebaldeko gizartearen garapenean, eta prozesu kolonialaren bidez hedatu da munduan barrena (Drucker, 2004).

Sexu aniztasunaren lehenengo gaitzespena Eliza Katolikoaren eskutik etorri zen, Erdi Aroan, eta *bekatu* forma izan zuen (Mirabet, 1985). Sodomia izan zen erlazio antinaturalak identifikatzeko erreferentziakoa hitza, Bibliako Sodoma herriari erreferentzia eginez, izan ere, bertako gizonak uzki koitoari eman zitzaizkien, jainkozko arau moralei desafio eginez. Hau da, ekintza bera (uzki koittoa) hartzen da ekintza gaizto, bekatuzko eta gaitzesgarritzat eta ez sentipen homoerotikoa; hortaz, gizakiaren hazia ugalketarako ez den bestelako egintza batean alferrik galtzea hartzen du funtsezkotzat.

Eliza Katolikoak, Erdi Aroko europar herritarrei kontrol soziala eta morala egiteaz arduratzen zen eragile nagusia izanik, zorrotz arautu zuen herritarren sexualitatea, eta baztertu egin zuen ugalketa biologikoa helburu ez zuen afektu eta plazer oro. *Statu quo* feudalari eusteko, beharrezkoa zen lurra landu, defendatu eta estamentu gizartearen betiketako zuten gizonen indarra, aukerarik eman gabe familiagune monogamo, katoliko eta tradizioaletik kanpo sexua eta emozioak gogobetetzeko aukerei (Dee, 2010). Gainera, sodomiaren bekatuak beste helburu batzuetarako ere balio izan zion Eliza Katolikoari, hala nola bere botereari desafio egiten ziotenen jazarpena justifikatzeko (adibidez, Elizak *zaldun tenplarioak* jazarri zituen sodomiaren salaketapean, botere handia lortzen ari baitziren).

Sexu aniztasunaren bigarren kondena Estatu absolutisten eskutik etorri zen, eta *delitu* forman egin zuen (Dee, 2010). Sodomitak ez ziren soilik pertsona bekatari eta lizunak, Estatuaren balioen aurkakoak ere baziren. Sodomien delitua instituzionalizatu zuen lehen errege absolutista Ingalaterrako Henrike VIII.a izan zen. Ez da harritzekoa absolutista zen eta sineste protestanteak zituen errege hark, Eliza Katolikoak arlo politikoan eta pertsonalean zuen eraginaren aurkakoa izanik, herrialdearen kontrol soziala bere gain hartu eta moralaren zaindari bihurtu nahi izatea. Haren eskutik sortu zen perbertsioaren ohitura zuten pertsonen (gizakien eta animalien arteko sexua ere sartzan zen horretan) heriotza zigorra ezarri zuten lehen legea (Buggery Act, 1533an)².

Sodomien bekatuaren instrumentalizazioa ere baliagarria izan zen errege absolutista harentzat. Ehunka emakume kondenatu zituen sutan hiltzera, sorginkeria eta sodomia leporatuta, eta gauza bera gertatu zen hainbat aurkari katolikorekin ere, protestanteen hedapenaren testuinguruan. Berriz ere, aniztasun sexuala gaitzestea baliagarria izan zen boterea zaintzen duten eragileentzat.

Boterearen begirada zorrotzaren pean, hainbat mendez sexu aniztasuna gaitzestearen ondorioz, aukera gutxi gelditzen ziren intimitatea eta plazera modu aske eta autonomoan arakatzeko. Desioaren bahiketa horrek emakumeei eragin zien batez ere, bazterturik baitzeuden etxearen, ugalketaren eta zaintzaren esparruetara. Haien mendekotasuna areagotu egin zen, ezkontza Estatuaren esku instituzionalizatu zenean. Kontratu zibil horrek gizonen esku uzten zituen emakumeak, eta gizonak zerbitzatu behar zituztela agintzen zuten legeak (eta ez elizak bakarrik). Ildo horretan, Hannah Deek gogorazten du Britainia Handiko Marriage Act (1753) delakoak kontratu publikotzat hartzen zuela

2 Animaliekin egiten den sexuak, bestialismo izenekoak, indarrean jarraitzen du gaur egun sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzen duten kolonia izandako herrialdeetako lege kode askotan, sodomiaren gaitzespena esplizituarekin batera.

ezkontza, zeinaren arabera emakumea gizonaren jabetza zen, eta hori are gehiago errotu zen klase sozialak finkatzean (Dee, 2010).

Sexu aniztasunaren hirugarren kondena industria iraultzaren eta burgesia boterera iritsi ondoren sortutako gizarte klaseen sistemaren loraldiarekin batera etorri zen, eta *gaixotasun* gisa definitu zen (Mirabet, 1985). Desira, plazer eta afektu okerrak bekatuzkoak ziren Elizarentzat, kriminalak Estatuarentzat eta, lehen aldiz, patologikoak eta arriskutsuak zientziarentzat.

XIX. mendeko Europan, Elizak galdu egin zuen plazeraren arauak erregulatzeko monopolioa, determinismo biologikoan oinarritutako diziplina medikoaren mesedetan. Iraganean "deabruak hartuta" zegoena "erotuta" egotera igaro zen, eta "sodomita" zena "galdua eta perbertsoa" izatera igaro zen. Gainera, sexua ekintza zigorgarri eta amoraltzat hartzeaz gain, aurrerantzean pertsona bera, haren gorputza eta borondatea ziren okerrak eta kaltegarriak. Bide beretik, medikuntzari, oro har, eta psikiatriari, bereziki, giza ugalketaren kontrako nahien azterketa interesatu zitzaion, eta asko, gainera. Interes horretatik hainbat termino sortu ziren sexu perbertsioak deskribatzeko, hala nola: "uranismoa", "kontrako sexu sentsibilizazioa" eta "homosexualitatea"³.

Huraxe zen XIX. mende amaierako hedapen kolonialaren aurretiko esparru morala. Pertsona homosexualen arima Jainkoak kondenatuta zegoen, Estatuak haien desira jazartzen zuen eta medikuntzaren esku zegoen haien gorputza. Askotariko sexualitatea eta generoa duten pertsonak ezingo dira zeru heterosexualean sartu, salbazioa zigor eta sendatze zuzentzaile moduan eskaintzen dien sistema moralean.

3.2. Homofobiaren eta transfobiaren globalizazioa

Mendebaldeko zibilizazioaren balio sexual bereizgarriak, eta haren berealdiko morala, kolonialismoaren bidez hedatu ziren mundu osora. Oscar Wilde poeta eta idazlea kondenatu zuten lege berberak baliatzen ziren Ugandan, Indian edo Australian, eta kartzelarekin edota heriotza zigorrarekin zigortzen ziren antinaturaltzat hartzen ziren sexu harremanak. Berriro ere, botereak arautu zituen kolonizatutako pertsonen plazera lortzeko arauak, eta, hala, mendebaldeko gizarte eta kultura balioak gailendu ziren (Drucker, 2004).

Afrikaren kasua bereziki argigarria da. Kontinentearen hedapen kolonialaren aurretik ere, XIX. mendearen amaieran, Erresuma Batuak eta Frantziak gidatuta, misio kristauek naturaz kanpoko harremanen aurka hezten zituzten kolonizatutako pertsonak, eta sodomiaren eta bestialismoaren arriskuez ohartarazten zieten (Human Rights Watch, 2003: 256)⁴. Kolonoek, bestalde, lege kodeak ezarri zituzten, barbarotzat, basatitzat, kulturaren ikuspegitik eta intelektualki maila apalagokotzat hartzen zituztenen bizitza kontrolatu ahal izateko; hau da, sexualitate primitiboagoa, axolagabea eta leialtasunetik, birjintasunetik eta monogamiatik urrun zutenena.

Europarrentzat, Afrika iparraldeak askatasun sexuala, huri lurrinduak, haur esklaboak, eunukoak, harema, trabestismoa eta era guztietako fantasia nomadak adierazten zituen (Hoad, 2007:11), eta, hegoaldeak, poligamia heterosexuala, haurren arteko ezkontza, ezkonsari gisa ganadua erabiltzea eta zirkunzisia (Epprecht, 2010:771). Ideia degeneratu hori, zeinaren arabera Saharaz hegoaldeko Afrika

3 Richard von Krafft-Ebing psikiatrak sexu perbertsioei buruzko *Psychopathia Sexualis* lanean erabilitako hitza (1886).

4 "Moralaren kontrako iraina", "sodomia", "bestialismoa", "jokabide ezegokien ondorioz ordena publikoa nahastea"... gisako hitzak aurkitzen dira homosexualitatea kriminalizatzen dituzten afrikar legeetan. Human Rights Watch (2003): *More than a name: State sponsored homophobia*, Human Rights Watch Ed., New York, 256. or.

sodomiaren bekatutik libre dagoen lurraldea den, konstante bat izan zen mendebaldeko historialarien behaketetan. Adibidez, Edwards Gibbon historialari britainiarrak *Decline and Fall of the Roman Empire* (1781) lanean adierazi zuen afrikarren artean ez zegoela perbertsio homoerotikorik (Essien eta Aderinto, 2009:122). Mende bat geroago, Richard Burton kontsul britainiarrak, afrikar kolonizazioari buruzko azterlan batean, afrikarrak sodomiatik garbi zeudela adierazi zuen, eta, horrez gainera, baieztatu zuen Sahara hegoaldeko mugaz haraindiko lurraldean ez zela sexu bereko pertsonen arteko harremanik existitzen (Stanford P., 2000: 43).

Deskolonizazioaren ondorioz sortutako estatuak itun kolonialean oinarritutako mendekotasun ekonomikoa zuten, garapen aldakorrari lotutako modernizazio eskasa, gizarte egitura zatitua eta diferentziala, eta, halaber, kontzientzia nazionalik gabeko estatu multietnikoak ziren (Kabunda, 2000:97). Sexu eta genero aniztasunaren kasuan, emantzipazio kolonialak gerra kultural eta erlijiosoko eremu bat sortzea eragin zuen (Human Rights Watch, 2009:3).

Sexu eta genero aniztasunaren adierazpen oro hartu zen amoral, dekadente eta zeharo mendebaldartzat, eta afrikar espiritu eta tradizioaren aurkakotzat (Epprecht, 2010:769). Hau da, Afrikako herritartasuna eraikitzean, homosexualitatea Afrikan inposatutako perbertsio koloniala zelako ideia sortu zen, eta horregatik hartu zen jazarri eta desagerrarazi beharrekotzat. Paradoxikoa da kolonialismoaren osteko estatu askotan, sistema koloniala ezaugarritzen zuen elementu oro baztertzeko asmoz, sexu aniztasuna kriminalizatzen zuten Europako legeei eutsi nahi izatea.

“Afrikan homosexualitatea ez da existitzen” eta “Afrikako balio eta tradizioen aurkako mendebaldeko perbertsioa da” oinarri hartzen duen ideia postkolonial hori indarrez barneratu zen iruditeria kolektiboan. Ikasketa postkolonialen esparruan erreferente den Frantz Fanon pentsalariak berak, *Peau noire, masques blancs* (Azal beltza, maskara zuriak) bere lan nagusian, ukatu egiten du Afrikan desira homosexuala modu natural eta hautatuan existitzen denik: “*Esan dezagun ez dugula aukerarik izan Martinikan homosexualitatea agerikoa denik egiaztatzeko. Antilletan Edipoa ez egotearen ondorioa ikusi behar da horretan. Izan ere, ezagutzen da homosexualitatearen eskema. (...) Europan homosexual bihurtu diren kide batzuk ezagutzen ditugu, pasiboak beti. Baina ez zen homosexualitate neurotikoa, ihesbide bat baizik, beste batzuentzat txuloa izatea den bezalaxe*” (Fanon, 2009: 156).

Afrikaren kasuak ondo erakusten du zer iritzi duten sexu aniztasunaren kriminalizazioa defendatzen duten iparraldeko eta hegoaldeko estatu globalek. Errusian, Ghanan zein Turkian sexu eta genero aniztasunaren jazarpena justifikatzeko, Estatuaren sorrerako balioen aurkako pertsonak direla adierazten dute. Haien artean, LGTBI+ pertsonak, oro har, eta sexu jardun ez-erreproduktiboak, bereziki, mehatxatu dira, jainkozko ordenaren aurka dihardute eta nazioen *statu quo* moralak usteldu eta suntsitu nahi duen mendebaldeko sexu agenda degeneratu batean txertatzen dira.

3.3. Sexu askapenerako mugimenduaren jaiotza eta hedapena

Mendebaldeko gizarteek homosexualitatearen gaitzespena katalizatu badute ere, eta prozesu kolonialaren bidez mundu osora esportatu badituzte ere sexualitatea kriminalizatzen duten legeak, sexu askapenerako mugimenduaren globalizazioaren lekuko ere izan dira. New Yorkeko *Stonewall Inn* pubean gertatutako matxinadak dira erreferente sinbolikoa. 1969ko ekainaren 28ko goizaldean izandako istiluek sexu askapenerako mugimendu modernoaren egituratu zuten mundu erdian, sexu aniztasunaren deskriminalizazioa eragin zuten herrialde batzuetan eta LGTBI+ identitateak globalizatu zituzten.

Mendebaldeko moral onak gaitzesten eta jazartzen zuen guztia irudikatzen zuen Stonewall Innek. Pub klandestino zen, eta pertsona migratuek, homosexualek, langileek, trabestiek eta sexu langileek

zuzentzen zuten. Pribilegio heteronormatibo eta patriarkalaren periferiako gune bat zen, non ihesbidea ematen baitzitzaien plazer debekatuei (gogoratu 1969an homosexualitatea kriminalizatuta zegoela mendebaldeko estatu askotan) eta genero adierazpen disidenteei.

Hain zuzen ere, haiek izan ziren, Marsha P. Johnson eta Sylvia Rivera trabesti arrazializatuak, jazarpenaz eta sarekadez nazkatuta, poliziari aurre egin ziotenak, existitzeko eta sentitzeko eskubidea zutela defendatzeko eta, sexu askapenaz haratago, arrazakeriaren, matxismoaren eta klase nagusitasunaren aurka borrokatzera bultzatuko zuen agenda politikoa markatzeko. Istiluetan 2.000 lagunek baino gehiagok egin zuten borroka 400 poliziaren aurka; zapalkuntza amaitzeko deia izan zen hura komunitate global osoan (D 'Emilio, 1983:7).

Haren ondorioz, besteak beste, indargabetzen joan ziren, apurka-apurka, homosexualitatea kriminalizatzen zuten legeak, eta baita homosexualak lana, hezkuntza edo etxebizitza eskuratzeko zuten diskriminazioa ere. Era berean, mendebaldeko herrialdeetan sexu askapenerako mugimenduak sortu ziren, hala nola Frantzia, Kanada, Australian, Alemanian, Italian, Belgikan, Holandan eta Erresuma Batuan (Dee, 2010:88). Hala ere, Marshak eta Sylviak piztutako metxa horrek mesede gutxi ekarri zien emakume lesbiana eta bisexualiei, eta bat ere ez trans pertsoneri. Eraitza amaitu gabeko borroka bat izan zen, zeinak, zentzu askotan, klase ertain-altuko gizon gay eta zuriak kontsumo kapitalistaren eta komertzialaren zirkuituan kokatzen dituen.

GIB/HIESa inflexio puntu berri bat izan zen LGTBI+ pertsonen eskubideen zabalkundean. 80ko hamarkadaren hasieran, milaka pertsona homosexual –gizonezkoak batez ere– hiltzen ziren ordu arte ikusi gabea zen gaixotasun baten ondorioz, azpikultura gay sendoak zituzten hirietan, besteak beste New York edo San Franciscon. HIESak haien organismo immunologikoa ahultzen zuen, pneumonia larriak eragiten zituen, eta, batzuetan, arrosa koloreko orbanak sortzen zituen azalean (Kaposiren sarkoma); hasieran, *gayei lotutako sindrome immunologikoa* (GRID ingelesez) edo "minbizi arrosa" izena eman zitzaion.

GIB/HIESaren agerpenak krisi bikoitza eragin zuen: krisi bat gaixotasunari erantzuteko eta beste bat gay. Are gehiago, krisi hura homosexualitatearen eta gayen bizimoduaren ingurukoa izan zen, eta "odol txarraren" argudio boteretsu eta emozionala baliatu zen gayen ingurunearen teoria eta birusaren teoria uztartzeko (Weeks, 1993: 88).

70eko hamarkadan hain azkar hedatutako sexu askapenerako *stonewall* osteko erakundeek erronka handia zuten aurrean: alde batetik, berariaz birusarekin lotzen zituzten ahotsetatik defendatu behar zuten beren burua, eta, bestetik, sendabide bat lortzeko eta gaixotasunaren prebentzio jardunak identifikatzeko borrokatu behar zuten.

Ikusezintasuna, isiltasuna eta milaka bizitzen galera ezaugarri zituen testuinguruan, HIESaren aurkako borroka ikusgai jarri zituen, nahigabe, milaka pertsona gay mundu osoan. Era berean, behartu zituen gobernu administrazioak sexu askapenerako erakundeekin eta LGTBI+ koalizioekin lankidetzan osasun erantzun bat egituratzera. Act-Up izan zen ezagun eta globalenetako bat. Lankidetzak horiek erakunde horien eta sexu harreman ez-erreproduktiboan aintzatespena eragin zuen, eta sexu askapenerako mugimendua bultzatzen eta hedatzen lagundu zuen, nolabait.

4. LGTBI+ pertsonen eskubideen ikuspegi orokorra

4.1. Estatu homofobia eta beste deabru batzuk

Homofobia eta transfobia gaitz globalak dira, eta gizarte guztietan agertzen eta ugaltzen ari dira, Estatuaren idiosinkrasia sozialetik eta balio sistematik haratago. Sexu eta genero aniztasunaren kriminalizazioa sistema publikoaren bitartez instituzionalizatzen duten herrialdeetan kokatzen da, hain zuzen, LGTBI+ pertsonen bizitzarako eta garapen askerako ondorio larrienetako bat.

ILGAK, ehunka LGTBI erakunde biltzen dituen nazioarteko elkarteak, mundu osoko LGTBI+ pertsonen eskubideen egoerari buruzko txosten bat argitaratzen du urtero. Azken edizioan (ILGA, 2020) adierazi zuen 69 herrialdek (Nazio Batuetako Estatuaren % 35ek) legez kanpokotzat jotzen dituztela sexu bereko pertsona helduen arteko sexu harreman baimenduak: 32 Afrikan, 22 Asian, 9 Latinoamerikan eta Kariben eta 6 Ozeanian⁵.

Estatu bakoitzak bere arauak ezartzen ditu, eta era honetara bereizten dira: aplikatzen duten zigor motaren arabera (zigor ekonomikoak, espetxe zigorra edo heriotza zigorra), helburu diren herritarren arabera (gayak, lesbianak, transak...) eta aurreikusten dituzten kondenak eta zigorrak gauzatzeko egiten duten interpretazioaren arabera (bigunak edo murriztaileak). Testuinguru horretan, Estatu Homofobia harreman negatibo eta erreaktibo baten inguruan egituratzen da, non Estatuak erabakitzen baitu nork eduki ahal dituen eta nork ez sexu harreman baimenduak, eta, horretarako, legeak, diskurtso baliabideak eta arau moralak baliatzen ditu. Izan ere, boterearen eta sexuaren artean harreman negatiboa baino ez da ezartzen: arbuioa, bazterketa, ezespina, hesia, ezkutatzea eta maskara (Foucault, 2009:87).

Estatu Homofobiak lortu nahi duen sexu aniztasunaren deuseztatena funtsezko hiru eragileren bidez egituratzen da. Lehenik, kristautasunaren, judaismoaren eta islamaren baitako *fundamentalismo erlijiosoak* dira sexu eta genero aniztasunaren kriminalizazioa legeztatzeko oinarri morala, behin eta berriro begiratu Sodomako herriari. Bigarrenik, *komunikabideek* gaitzespen mezuak zabaltzen dituzte, heterosexuak ez diren pertsonak jazartzera eta ehizatza deituz, batzuetan⁶. Azkenik, *Estatuak* bere araudi berezia legeztatzen du sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzeko, agenda politikoan sartuz erlijio fundamentalismoen eta komunikabide homofoboaren diskurtsoak (Rubio, 2017).

Askotan, homofobia eta transfobia onura politikoren bat lortzeko helburuarekin sartzen da gobernuen agendan. Erdi Aroko elizak, errege absolutistek eta ilustrazio garaiko zientziak onuraren bat lortzeko baliatzen zuten sodomiaren zigorra; eta, gaur egun, agintari politiko askok ere helbururen bat lortzeko erabiltzen dute. Adibidez, Yoweri Museveni Ugandako presidenteak, boterean betikotzeko helburuarekin (karguan 1996az geroztik), kongregazio ebanjelikoen babesa lortu du haien eskaerak aintzat hartuz; besteak beste, pertsona homosexualentzako heriotza zigorra ezarri. Errusian, Vladimir Putinek ere eliza ortodoxoaren babesa bilatu du, agintaldia luzatzeko helburuarekin, eta, horretarako, bere egin ditu "propaganda homosexualaren" aurkako eskaerak. Brasilen, Jair Bolsonaro presidente ohiak ere alderdi politiko ultrakontserbadore eta ebanjelisten babesa izan zuen; azken hauek, legedian hainbat aldaketa egiteko eskatu zioten sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzeko helburuarekin.

5 Trans pertsonen munduan dituzten eskubideei buruzko txostena ere argitaratzen du elkarteak. Baliabide hori bereziki interesgarria da jakiteko nola aitortzen dieten herrialdeetako araudiak trans pertsonen dokumentu ofizialetan beren genero adierazleak aldatzeko eskubidea.

6 Ugandan, adibidez, *Red Pepper* eta *Rolling Stone* aldizkariak pertsona homosexualen argazkiak argitaratu zituzte izen-abizenekin, haien bizilekua eta lantokia adierazi zituzte, eta herritarrei haiek urkatzeko deia egiten diete.

Edonola ere, kolektibo ez-heterosexualaren parte bat eroso sentiaraztea onuragarria izan daiteke tradizionalki sexu eta genero aniztasunaren aurka agertu diren eragile politikoentzat. Adibiderik adierazgarrienetako bat Marie Le Pen eta Nazio Elkarte (iraganeko Fronte Nazionale) taldearena da; berera hurbildu nahi dituzte gay zuri kontserbadoreak eta klase ertain eta altukoak, beren ospea handitzeko eta jarraitzaileak ugaritzeko. Hain zuzen, eskuin muturreko gero eta mugimendu gehiagok onartzen dituzte beren zerrendetan homosexual zuriak, arrazistak, klasistak eta matxistak, eta baztertzen dituzte sistemara egokitzen ez diren marikak, bollerak, trans pertsonak eta gainerako identitate eta gorputz disidenteak.

4.2. Sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzearen ondorioak

LGTBI+ pertsonen giza eskubideen urraketa Estatu Homofobiaren ondorio zuzena da. Testuinguru horietan, beren nahi, identitate eta gorputzagatik jazartzen diren pertsonen ukatu egiten zaie Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean agertzen diren eskubideen erdia baino gehiago, hezkuntza, osasuna, lana eta etxebizitza edukitzeko eskubideak barne.

Gainera, sexu aniztasuna kriminalizatzen duten legeetan aurreikusitako zigorrek herritar guztiei eragiten diete. Adibidez, Ugandan, homosexualitatearen aurkako egungo legediak zigorrak ezartzen dizkie heterosexuala ez den norbaiti etxebizitza bat alokatzen edo saltzen dieten pertsonen (Anti-Homosexuality Act 2023). Txetxenian, agintariek dozenaka pertsona bahitu, torturatu eta hil dituzte, haien orientazio sexualagatik edo ustezko orientazio sexualagatik (Amnesty International, 2019).

Estatu Homofobiaren instituzionalizazioaren beste ondorioetako bat maskulinitate biolentoak legitimatzea da. Estatu Homofobiaren testuinguruan, maskulinitasunaren eraikuntzan Estatuaren helburuentzat baliagarriak diren hainbat osagarri erabiltzen dira, hala nola gizonek sexu orientazioa, genero identitatea eta genero adierazpen disidentea duen edozein pertsonaren aurrean indarkeria erabiltzea. LGTBI+ pertsonen indarkeriaz erantzuten dieten gizonen multzoa Estatu Homofobia instituzionalizatuta ez dagoen baina arlo sozialean errotuta dagoen herrialdeetara ere heda daiteke. Ildo horretatik, gogoan eduki behar da azken hamarraldian Hegoafrikan emakume lesbianen kontra izan diren bortxaketa eta hilketa basatiak, edo Hondurasen eta El Salvadorren trans emakumeen hilketa ugariak; herrialde horietan homosexualitatea ez dago kriminalizatuta.

Sexu eta genero aniztasunaren kriminalizazioak ondorio zuzenak ditu, halaber, Sexu bidez Transmittituriko Gaixotasunen (STG) prebentzioari dagokionez. Gogora dezagun homofobia instituzionalizatua duten estatuetan, iruditeria kolektiboan mantra bat dagoela, "homosexualitatea ez dela existitzen" eta "mendebaldeko perbertsioa eta kutsadura" dela dioena. Horren ondorioz, herritarrei ez zaie sexu harreman ez-heterokoitalei buruzko informaziorik ematen, STGei buruzko ezjakintasuna areagotu egiten da eta babes neurri arineko sexu harreman ezkutukoak bultzatzen dira (Baral, 2009).

Estatu Homofobiak zenbait estaturen kanpo politikan ere baditu ondorioak. Adibidez, Garapenerako Laguntza Ofizialak (GLO) lotura ekonomikoa ezartzen du herrialde garatuekin, eta presio ekonomikoko baliabide potentziala bihurtzen da (Forcada, 1996:122). Testuinguru horretan, mendebaldeko herrialde batzuek sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzen duten legeak amaietza jarri dituzte GLOak emateko baldintza modura, eta hori beren moralean eta tradizioan eskua sartzea dela interpretatu dute; hala, indartu egin da sexu eta genero aniztasuna mendebaldeko agendan dagoen eta inposatu nahi duten perbertsioa delako ideia.

4.3. Sexu eta genero aniztasuna giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean

LGTBI+ pertsonen eskubideei buruz jarduten dugunean, inoiz ez gara eskubide edo pribilegio berriei buruz ari. Sistema juridikoa bizitzari atxikitzen zaion sexu eta genero aniztasunaren errealitatera egokitzeaz ari gara, sexualitate eta gorputz disidenteeek jasaten duten diskriminazioari eta indarkeriari aurre egiteko. Horrela baino ezingo da bermatu giza eskubideen unibertsaltasunaren printzipioa: pertsonak eskubide guztien titular dira.

Garrantzitsua da ideia hori argitzea, mundu osoko erlijio fundamentalismoek eta eskuin erreakzionarioek zenbait lege –hala nola berrorientazio sexualeko terapien debekua, haur intersexualen genitalen mutilazioa edo sexu bereko pertsonen arteko ezkontza– “kolektibo berri” baten “eskubide berriak” direla adierazten duten unean. Adibidez, Konferentzia Islamikoaren Erakundeak behin baino gehiagotan adierazi du ez dagoela prest bere herrialdeetako tradizioari eta ordena sozialari erasotzen dien eskubide berriak babesteko, moralaren aurkako atentatutzat jotzen baitituzte (O’Flaherty, 2008: 228).

Giza Eskubideen adierazpen gorena, sexu eta genero aniztasunaren alorrean, *Sexu orientazioari eta genero identitateari dagozkion giza eskubideen nazioarteko legeriaren aplikazioari buruzko printzipioak* dira, “Jogyakartako Printzipioak” (2007) izenez ezagunak. Dokumentu hori LGTBI+ pertsonen Giza Eskubideen Lege Nagusia da mundu osoan, eta nahitaez kontsultatu behar du eremu horretan ikertu eta jardun nahi duen edonork.

Jogyakartako printzipioek Giza Eskubideen nazioarteko beste edozein adierazpen edo itunen egitura dute, eta oinarrizkoak dira nazioarteko erakundeek eta estatuak LGTBI+ pertsonen giza eskubideen aldeko esparru espezifiko bat osatzeko. Hitzaurrean bertan azaltzen da printzipioek nazioarteko zuzenbideari egiten dioten ekarpenetako bat, bertan egiten baita “orientazio sexualaren” eta “genero identitatearen” definizioa. Illo horretan, giza eskubideen nazioarteko sistemaren esparruan dauden osatuenetakoak dira bi definizioak, eta erreferenteak dira, orobat, nazioarteko erakundeentzat, Nazio Batuen agentzientzat eta zenbait gobernurentzat (Pulgarín, 2011: 240).

Jogyakartako printzipioak garrantzitsuak dira, halaber, eskualdeetako eta estatuetako gobernuek LGTBI+ pertsonen aldeko legeak garatzera bultzatu dituztelako. Esate baterako, hirugarren printzipioak genero autodeterminaziorako eskubidea aipatzen du, prozedura medikorik, sexua berresleitzeko kirurgiarik, esterilizaziorik eta terapia hormonalik gabe, genero identitatea legez aitortzeko baldintza gisa. Printzipio nagusia izan da onartu berri den Espainiako 4/2023 Legean, trans pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko.

Jogyakartako Printzipioez gain, badira estatuak nahitaez bete behar dituzten beste babes mekanismo batzuk ere, normalean betetzen ez dituztenak. Lehenengo betebeharra da *pertsona guztiak babestea indarkeria homofobo eta transfoboaren aurrean*⁷; horrek esan nahi du, pertsona ororen bizitzeko eskubidea bermatzeaz gainera, orientazio sexuala eta genero identitatea edozein dela ere, estatuak aurrea hartu behar dietela exekuzio estrajudizialei eta babesa eman behar dietela arrazoi horregatik jazarritako pertsoneri.

Bigarren betebeharra da *edozein eratako tortura, tratu errukigabe, anker eta iraingarriri aurrea hartzea*⁸.

7 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluari, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 6. eta 7. artikuluei eta Errefuxiatuaren Estatutuari buruzko Konbentzioaren 33 (1) artikuluari jarraikiz.

8 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 5. artikuluari, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 7. artikuluari eta Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Anker, Krudel edo Iraingarrien kontrako Konbentzioaren 1.1 eta 2.1 artikuluei jarraikiz.

Betebehar horren barruan sartzen da uzki azterketen –ohikoa Estatu Homofobiaren testuinguruetan, sexu harreman koitalak egon direla frogatzeko– edo pertsonak heterosexual bihurtzeko elektroshock bidezko terapien debekua.

Hirugarren betebeharra da *munduan homosexualitatea deskriminalizatzea*⁹, inor jazarri, espetxeratu eta kondenatu ez dadin, bere desira, plazer, maitasun edo genero adierazpenengatik. Laugarren betebeharra da *sexu orientazioan eta genero identitatean oinarritutako diskriminazioa debekatzea*¹⁰ hezkuntzan, lanean, osasun alorreko arretan, laguntza juridikoan edo etxebizitza bat eskuratzean, besteak beste. Bosgarren betebeharra da *adierazpenerako, elkartzeko eta modu baketsuan biltzeko askatasuna errespetatzea*¹¹, eta horrek, besteak beste, harrotasunaren martxak babestea dakar. Ez dezagun ahaztu martxa horiek ahaldundu eta eremu publikoetan ikusarazi egiten dituztela parte-hartzaileak, zeinetatik kanpo utzi ohi baitira maiz.

Dena dela, luzarorako dugu borroka. Hainbat Estatuk ez dituzte betetzen Giza Eskubideen nazioarteko betebeharrak LGBTBI+ pertsonekin, eta Jogyakartako Printzipioak ez dira inolaz ere nazioarteko estandarra. Gainera, sexu eta genero aniztasuna Nazio Batuen Sistemaren sartzeko prozesua motela eta zehaztugabea da oraindik. Esate baterako, Osasunaren Munduko Erakundeak ez zuen homosexualitatea despatologizatu 1990. urtera arte; Giza Eskubideen Kontseiluak sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko lehen ebazpena ez zuen 2011ra¹² arte eman, eta transexualitatearen despatologizazio partziala ez zuen 2018ra arte egin¹³.

9 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2., 7., 9. eta 12. artikuluei eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 2.1, 6.2, 9, 17 eta 26 artikuluei jarraikiz.

10 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2. eta 7. artikuluei, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 2.1 eta 26 artikuluei, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenaren 2. artikuluari eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 2. artikuluari jarraikiz.

11 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. eta 20.1. artikuluei eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 19.2, 21 eta 22.1 artikuluei jarraikiz.

12 Giza Eskubideen Kontseiluaren Ebazpena – Giza eskubideak, sexu orientazioa eta genero identitatea (2011ko uztailaren 11n onartua), [A/HRC/RES/17/19](#).

13 Osasunaren Mundu Erakundeak, gaixotasunen eskuliburuan (CIE-11), nahasmenduen ataletik kanpo utzi zuen transexualitatea, baina "genero inkongruentzia" izena jartzen dio.

5. Ikerketarako eta ekintzarako zenbait proposamen

Sexu eta genero askapenaren aldeko borrokaren desafioak eta erronkak presente daude oraindik ere gizarte guztietan. Bai Estatu Homofobia nahita gauzatzen duten herrialdeetan bai eskuin muturreko alderdi politiko sortu berrien diskurtso homofobo eta transfoboetan, sexu eta genero aniztasuna behin eta berriazaltzen da politikaren jokalekuan.

Jarraian, 5 ildo berritzaile proposatzen dira, esparru horretako ikerketen, azterketen eta ekintzaren oinarri izan daitezkeenak; edonola ere, beti izango da ongi etorria aktibismotik edo akademiatik abiatuta ekarpenak egiten dituen beste edozein proposamen.

- *LGTBI+ mugimendua birpolitizatzeke erabilitako estrategiak aztertzea.* Sexu bereko pertsonak ezkontzeke eskubidearen onarpenak itzala egin die LGTBI+ kolektiboaren beste eskaera eta aldarrikapen historiko batzuei (esate baterako, pertsona intersexualen mutilazio genitalen amaiera, genero autodeterminazioa edo emakume lesbianen ikusezintasunaren aurkako borroka), eta, gauzak horrela, iparralde eta hegoalde globaleko hainbat mugimenduk adierazi dute berriro markatu beharra dagoela agenda. Hegoafrikan, LGTBI+ erakunde ez-pribilegiatuak (zuriak ez diren pertsonak, langileak, migratuak... osatuak) zalantzan jartzen dute Lurmutur Hiriko edo Johannesburgoko harrotasunaren martxek jai izaera izan behar ote duten, eta gizartea aldatzea eskatzen dute, homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeaz gain, beste borroka batzuk ere kontuan hartuko dituen, hala nola arrazismoaren, matxismoaren eta klase zapalkuntzaren amaiera ekarriko dutenak. Era berean, Madrilan eta Bilbon, LGTBI+ mugimenduak E28ko ekitaldi instituzionalen aurka agertu dira, komertzializatu egin direla eta kapitalistak direla uste baitute. Errealitate hori kontuan hartuta, mugimendu kritikoez gizarte eraldaketarako zer estrategia planteatzen dituzten, zer eskaera historiko eta eskaera berri egiten dituzten eta, oro har, LGTBI+ pertsonen eskubideen agendan eta bereziki beren identitateen osieran zer eragin duten identifikatuko duen ikerketa bat proposatzen da.
- *Sexilioaren edo landa ingurune bat utzi eta sexu eta genero askatasunaren bila hirira migratzen duten pertsonen azterketa.* Hainbat hamarraldiren ondoren, mendebaldeko gizarteetako irudimen kolektiboan errotuta daude hiri espazioek sexu eta genero askapenerako gune gisa eskaintzen dituzten aukerak. Herrietan nagusi den moral tradizional eta kontserbadorean ez bezala, hirietan badira LGTBI+ sare sozial formal eta informalak, kolektibo horri zuzendutako guneak eta haien eskubideen aldeko erakundeak. Errealitate horren eraginez, milaka lagunek migratu dute sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik, *Espainia Hutsa* izenekoaren antzeko fenomenoekin lotzen den esparru sistemiko batean. Funtsezko ekintzat hartzen da sexilioa aztertzea, hiri inguruneei zein landa inguruneei lotutako aurreiritziak eta estereotipoak desagiteko (ez dezagun ahaztu edonon egon daitekeela bizilagun fatxa), eta orientabideak identifikatzea, herriak eremu inklusiboagoak eta askotarikoagoak izan daitezzen eta inork ez dezan migratu derrigorrez edo aukeratu gabe. Gainera, sexilioaren azterketa agindu bat da onartu berri den trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko 4/2023 Legean, eta, horregatik, horri buruzko edozein ikerketa eta/edo ekintza lagungarria izango da lege hori garatzeko eta jorratzeko.
- *Pertsona bisexualek LGTBI+ kolektiboaren barruan ikusgarritasuna lortzeko erabiltzen dituzten estrategiak aztertzea.* Sexu eta genero identitateen artean, pertsona bisexualen multzoa izan da ahaztu eta irainduenetako bat. Gizon gayek LGTBI+ eskubideen agenda monopolizatu dute, eta oraingoz oso modu ahul eta osatugabe hartu dituzte aintzat emakume lesbianen eta trans eta intersexualen eskaerak. Hala ere, ez da hain ezaguna pertsona bisexualen agendaren ibilbidea, identitate hori partekatzen duten erreferenteen identifikazioa eta sexu eta genero askapenerako mugimenduaren barruan duten antolamendua. Esparru dikotomiko batean ikusgarritasun handiagoa lortzeko erabilitako tresna eta estrategietan sakontzea proposatzen da, beren afektua, desira eta plazera genero batera eta bestera bideratzen duten pertsonak ez baitira bertan ulertzen eta defendatzen.

- *Orientazio sexualaren eta genero identitatearen ondoriozko asilo eta babes eskubidea aitortzeko politikak ebaluatzea.* Estatu Homofobiaren testuinguruetan, sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik jazarriak diren pertsona askok erabakitzen dute asiloa eta babesa eskatzea LGBTBI+ pertsonak hartzen dituzten estatuetan (mendebaldekoak gehienak). Hala ere, asko eta asko kalteberatasun, diskriminazio eta indarkeria egoerak bizi dituzte helmugan (adibidez, Atzerritarrentzako Zentro Itxietan), sistema judizialean bigarren mailako biktimizazioa dutenak (adibidez, heterosexualak ez direla frogatzera behartzen dituztenean) eta pertsona horientzako harrera protokolorik ezari aurre egin behar diotenak. Mendebaldeko herrialdeetan LGBTBI+ pertsona jazarriak hartzeko prozesuen arrakaletan sakontzea proposatzen da (maila judizialean, sozialean, lanaren eremuan, etab.), eta agerian jartzea pertsona horiek Espainian, Frantzian, Erresuma Batuan edo Kanadan zer erronka eta desafiori aurre egin behar dieten; eta, azkenik, orientazio sexualaren eta genero identitatearen ondorioz asiloa eta babesa emateko sistema hobetzeko proposamenak eta orientabideak identifikatzea.
- *Estatu Homofobiaren testuinguruetan LGBTBI+ pertsonen borroka eta erresistentzia ekintzak identifikatzea.* Ikerketa ugari oinarritu dira Estatu Homofobiaren kausalitatearen, sexu eta genero aniztasuna kriminalizatzen duten tresnen eta horien aplikazioak LGBTBI+ pertsonen bizitzetan dituen ondorioen deskribapenean. Beharrezkoa bada ere arreta horretan jarriko duen azterlan bat, askotan ahaztu egiten dira sexu eta genero aniztasunaren aurkako erabateko gerraren testuinguruan LGBTBI+ aktibismotik ematen diren erantzunak. Iranen, Ugandan eta Errusian, esaterako, hainbatek jartzen dute beren bizitza arriskuan sexu eta genero askatasuna defendatzeagatik, eta gune seguruak eskaintzen dizkiete sexu orientazio eta genero identitate disidenteak dituzten pertsoneri, sare informalen bidez. Jazarpen eta indarkeria testuinguruetan antolatzen eta sustatzen dituzten ekintzak identifikatzeko azterlanak egitea proposatzen da, era horretara, haien lana, balioa, borroka eta duintasuna aintzatesten lagunduko baita.

6. Erreferentzia bibliografikoak

ANTI-HOMOSEXUALITY ACT (2023). Hemen dago eskuragarri:

[<https://www.parliament.go.ug/sites/default/files/The%20Anti-Homosexuality%20Act%2C%202023.pdf>]

AMNISTÍA INTERNACIONAL (2019). "Rusia: Dos años después de la "purga gay" de Chechenia, las víctimas aún buscan justicia y un defensor LGBTI recibe amenazas de muerte". Prentsa-oharra, 2019ko apirilak 1. Hemen dago eskuragarri:

[<https://www.amnesty.org/es/latest/press-release/2019/04/russia-two-years-after-chechnyas-gay-purge-victims-still-seek-justice-as-lgbti-defender-receives-death-threats/>]

BARAL, Stefen, et al. (2009): "HIV prevalence, Risk for HIV infection, and Human Rights among Men Who have sex with Men (MSM) in Malawi, Namibia and Botswana", hemen: *Plos One*, 4 (3), e4997

COLLINS, Patricia H. (2000): "Gender, Black Feminism, and Black Political Economy. *Annals of the American Academy of Political and Social Science*", hemen: *The Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 568, 41-53.

CRENSHAW, Kimberlé W. (1991): "Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color", hemen: *Stanford Law Review*, 43 (6), 1241-1299.

D'EMILIO, John (1983): "Capitalism and Gay Identity", hemen: SNITOW, Ann (et al.), *Powers of Desire: The Politics of Sexuality*, New Feminist Library Series, Monthly Review Press Nueva York.

DEE, Hannah (2010): *The red in the rainbow: sexuality, socialism & LGTB Liberation*. Boommarks, Londres.

DRUCKER, Peter (2004): *Arco Iris Diferentes*. Siglo XXI Ediciones, México D.F.

EPPRECHT, Marc (2010): "The Making of African Sexuality", hemen: *History Compass* 8 (8), 768-779.

ESSIEN, Kwame eta Aderinto, Saheed (2009): "Cutting the head of the roaring monster: homosexuality and repression in Africa", hemen: *African Studies Monographs*, 30 (3), 121-135.

FANON, Frantz (2009): *Piel Negra, máscaras blancas*. Akal, Madril.

FORCADA Barona, Ignacio (1996): *El condicionamiento político y económico de la ayuda oficial al desarrollo*, Tirant monografías, Valentzia.

FOUCAULT, Michel (2009): *Historia de la sexualidad (2): el uso de los placeres*. Siglo Veintiuno de España Editores, Madril.

GUARDAJO S., Gabriel, (2002): "Contexto sociocultural del sexo entre varones", hemen: Cáceres, C. F., Pecheny, M., eta Terto Júnior, V (Eds.): *SIDA y sexo entre hombres en América Latina: Vulnerabilidades, fortalezas, y propuestas para la acción - Perspectivas y reflexiones desde la salud pública, las ciencias sociales y el activismo*. Universidad Peruana Cayetano Heredia, Lima, 58-59. or.

HOAD, Neville (2007): *African Intimacies: race, homosexuality and Globalization*. University of Minnesota Press, Minneapolis.

HUMAN RIGHTS WATCH (2003): *More than a name: State sponsored homophobia*. Human Rights Watch Ed., New York.

HUMAN RIGHTS WATCH (2009): *Together apart: Organizing around Sexual Orientation and Gender Identity Worldwide*. HRW, New York.

ILGA (2020): *Homofobia de Estado, actualización del panorama global de legislación*. ILGA, Geneva.

KABUNDA Badi, Mbuyi (2000): *Derechos Humanos en África: teorías y prácticas*. Arg. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA (2018): *Glosario de términos sobre diversidad afectivo sexual*. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Madril.
- MIRABET I MULLOL, Antoni (1985): *Homosexualidad Hoy*. Herder, Barcelona.
- O'FLAHERTY, Michael y Fisher, John (2008): "Sexual orientation, Gender Identity and International Human Rights Law: contextualizing the Yogyakarta Principles", hemen: *Human Rights Law Review*, 8 (2), 207-248.
- ONUSIDA (2009): *Action Framework: universal access for men who has sex with men, and transgender people*. ONUSIDA, Geneva.
- JOGYAKARTAKO PRINTZIPIOAK (2007). *Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de derechos humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género*, Jogyakarta. Hemen dago eskuragarri: [\[http://yogyakartaprinciples.org/wp-content/uploads/2016/08/principles_sp.pdf\]](http://yogyakartaprinciples.org/wp-content/uploads/2016/08/principles_sp.pdf)
- PULGARÍN, Mauricio Pulecio (2011): "Teoría y práctica de los principios de Yogyakarta en el derecho internacional de los Derechos Humanos", hemen: *Revista Análisis Internacional*, 3, 239-259.
- RUBIO LLONA, Aimar (2017). *Homofobia de Estado y diversidad sexual en África: Relato de una lucha*. Hegoa, Bilbo.
- STANFORD PINCHEON, Bill (2000): "An ethnography of Silences: Race, (homo)sexualities, and a discourse of Africa", hemen: *African Studies Review*, 43 (3), 39-58.
- WEEKS, Jeffrey (1993): *El malestar sexual: significados, mitos y sexualidades modernas*. Talasa, Madril.
- ZAPPINO, Federico (2022). "El modo de producción heterosexual: elementos para una teoría general", hemen: *¿Qué hacer maricón?*, Levanta Fuego, Madril, 82-108. or.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.

17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Sailsa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa¹, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Sailsa, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatze erroka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erroka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
31. Zaintza eta zahartzarora: XXI. mendeko errokek. Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Sailsa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Sailsa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Sailsa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Sailsa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Sailsa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
32. Ekofeminismoak. Biztzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea. Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXX. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
33. Sexu eta genero aniztasuna aztertze gakoak. Aimar Rubio Llona. Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU.

